



Gorka Matute | MANUEL LARRAMENDI IKASTOLA (ANDOAIN)

3. saria

(<http://www.andoainikastola.net>)

BATXILERGOA

“IKASLEEI ETAPA BAKOITZEAN LANERAKO TRESNA EGOKIAK ERABILTZEKO AUKERA EMATEN DIE KOSMODISEAK, ETA HORIXE DA ONENA”

Gorka Matute Andoaingo Manuel Larramendi ikastolako "Lima-limoia" taldearen irakasle arduraduna dugu. Talde horrek irabazi du, hain zuzen, Batxilergoa etapako hirugarren saria. Matutek azaldu duenez, ikasleek Kosmodiseako etapa honetan parte hartzea oso esperientzia positiboa izan da. *"Ikasleak nahiko motibatuta egon dira hasieratik bertatik, eta horrek asko errazten ditu gauzak".*

- Zure ustez, ekimen honetatik zer iruditu zaie interesgarriena ikasleei?
- Azken etapako bideoa muntatzeko lana iruditu zaie interesgarriena. Grabazioa prestatzea, "antzez-lana" egitea, editatzea, etab. Ezin hobeto ibili dira lan horretan.

- Zer iruditu zaizkie emaitzak ikasleei?
- Pozik daude; lana egin ondoren saria jasotzeagatik zoriontsu.

- Zure iritziz, Kosmodisean parte hartuta, ikasleek zer balio positibo eskuratuko dituzte?
- Taldean lan egitea. Hortik, balio ugari ikasten baitituzte ikasleek. Gainera, proiektu honek IKTak modu egokian erabiltzeko aukera ematen die.

- Zer da, zure ustez, Kosmodisea 2009-2010eko gauzarik onena? Zer alderdi hobetuko zenituzke?
- Etapa bakoitzean egin beharreko lanak dira Kosmodiseak duen gauzarik onena. Ikasleek etapa bakoitzean lanerako tresnak erabiltzeko izaten duten aukera eta taldeko lana zinez ezaugarri garrantzitsuak dira. Agian, ebaluazio atala hobetu beharko litzateke. Lanei buruzko iritzia ematean, ikasleek ez ezik, "adituek" ere jardun beharko lukete.

- Parte hartuko al duzue hurrengo Kosmodisean?
- Hala espero dugu.

- Ideiak, iritziak, iradokizunak, oharrak, kritikak...
- Era honetako ekintzak sustatu behar dira; izan ere, ikasleentzat benetan motibagarriak dira.